

NOLA ERABILI

10. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan hiru atal nagusi bereizi ditugu.

NORTZAT -prolatiboa-

03:30

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

ZEREZ / ZERTAZ -instrumentala-

05:11

AUTOZ/AUTOAN

-zko

NOREKIN/ZEREZ

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz, eta koadroko galderei erantzun.

Koadroa bete ondoren, esan ikasleei antzeko bost galdera presta ditzatela. Hori eginda, bilatu erantzunak denon artean.

OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

10. GELTOKIA

NORTZAT -prolatiboa-

NORTZAT deklinabide kasuak ez du aparteko zailtasunik. Mugagabeen deklinatzen da bakarrik. Baina, NORTZAT kasua, gainerako kasuak ez bezala, loturazko "e" tartekatu gabe deklinatzen da.

MUGAGABEA -tzat

Gizontzat daukazun horrek egin du.
Arditzat hartu dut.
Ikerren neskatzat hartu zaitut.

NORTZAT deklinabide-kasuaren galdetzaileak bi dira:

NORTZAT

ZERTZAT

Esanahiari dagokionez, bi adiera izan ditzake. Ikus dezagun.

NEREA Zu, Mirenen neba zara.
MIKEL Ez, nik ez daukat arrebarik.

§

Nereak Mikel Mirenen nebatzat hartu du. Nereari Mikel Mirenen neba dela iruditu zaio.

NEREA Ba al daukazu arrebarik?
MIKEL Ez.
NEREA Eta, nahiko zenuke?
MIKEL Bai.
NEREA Bada, nire neba izango zara.

Nereak Mikel nebatzat hartuko du. Nereak Mikel neba bihurtuko du.

ZEREZ / ZERTAZ -instrumentala-

Deklinabide-kasu horrek bi forma hartzen ditu. Bi formak Mugagabeen agertzen dira.

Kasu gehienetan *-ez* erabiltzen da; *-taz* aldaera kasu jakin batzuetan baino ez da erabiltzen.

**NORTAZ, ZERTAZ, NORTZUETAZ,
ZEINE(TA)Z, ZEINTZUE(TA)Z eta ZENBATE(TA)Z**
galdetzaileak osatzeko.

INORTAZ eta EZERTAZ
bezalako, eratorriak osatzeko.

HONETAZ, HORRETAZ, HARTAZ, HAUETAZ, HORIETAZ, HAIETAZ
erakusleak osatzeko.

NITAZ, HITAZ, HARTAZ, GUTAZ, ZUTAZ, ZUETAZ, HAIETAZ
pertsona-izenordainak osatzeko.

Gainerako kasuetan *-ez* forma erabiliko dugu, mugagabeen. Hala ere, galdera egiteko bi aukera izango ditugu: ZEREZ eta ZERTAZ; baina, erantzuna osatzeko, forma bakarra erabiliko dugu.

Nerea eta Oihane.

NEREA Idatzi diot gutuna Mikeli.
OIHANE A bai? Eta zerez idatzi diozu?
NEREA Bolalumaz idatzi diot.
OIHANE Eta zertaz idatzi diozu?
NEREA Bada, txangoaz.

Zerez idatzi dio? Bolalumaz idatzi dio. Baina, zertaz idatzi dio?
Edo, zeri buruz idatzi dio? Txangoaz idatzi dio.

Ikus dezagun ZEREZ / ZERTAZ deklinabide-kasua nola deklinatzen den.
Has gaitzen mugagabearekin.

MUGAGABEA -(e)z, -(e)taz

Hainbat gizonaz baliatu da.
Ardiz beteta dago ukulua.
Zenbait neskoz mintzatu da.
Zenbait nekari buruz mintzatu da.

Mugatu singularra bada, honela deklinatzen da:

MUGATU SINGULARRA -az

Oinaz zapaldu du.
Eskuaz jo du.
Neskaz baliatu da engainatzeko.

Mugatu plurala bada, honela deklinatzen da:

MUGATU PLURALA -ez

Oinez joan naiz.
Eskuez lantzen da buztina.
Neskez ez naiz mintzatuko.

AUTOZ / AUTOAN

Sarritan, ZEREZ eta NON kasuak nahastu egiten ditugu. Ikus dezagun, adibide batzuen bidez, bi kasuen arteko aldea.

Mikel trenez dator.

Mikel trenez badator, Mikel trenean dago.

Mikel trenez dator. Nola dator? Zerez dator?
Mikel trenean dago. Non dago?

Baina, garraioa mugatua bada, NON kasua erabiliko dugu.

Mikel autoz etorri da.
Mikel aitaren autoan etorri da.

Nerea autobusez etorri da.
Nerea seietako autobusean etorri da.

Autobusez etorri da. Zein autobus? Nolako autobusa? Ez dakigu.
Badakigu, ordea, autobusa hartu duela etortzeko. Ezin dugu mugatu autobusa.
Edozein autobus izan daiteke. Autobusa tresna bat da, horregatik etorri da autobusez.

Seietako autobusean etorri da. Oraingoan badakigu zein autobusetan etorri den. Seietan autobus bat dago. Bada, Nerea autobus horretan etorri da. Seietako autobusean. Ez beste autobus batean, ez; seietakoan etorri da. Beraz, autobusez etorri da, hori bai, baina seietako autobusean.

-zko

ZEREZ / ZERTAZ kasuaren atzizkiari *-ko* atzizkia eranstean badiogu, *-zko* atzizkia lortuko dugu.

-Zerezkoak dira? Burdinazkoak, plastikozkoak ala zurezkoak?

-Ez dira buztinezkoak. Ez dira plastikozkoak. Zurezkoak dira.

-Zerezkoa da?

-Zerezkoa da?

-Zerezkoa da?

-Argizarizkoa.

-Buztinezkoa.

-Kartozkoa.

ERANTZUN

-Zerez egiten dira liburuak?

-Zerez moztu zinen inauterietan?

-Zerez baliatzen dira arrantzaleak beren lana egiteko?

-Zerez osatua dago ura? Eta granitoa?

-Zerez etortzen zara institutura?

-Zerezkoak dituzu oinetakoak?

NOREKIN / ZEREZ

NOREKIN eta ZEREZ kasuak arrunt antzekoak dira. Hainbat testuingurutan biak erabil daitezke. Hala ere, komeni da zertan diren ezberdin jakitea. NOREKIN kasua laguntza edo kidetasuna adierazteko erabiliko dugu. ZEREZ kasua, ordea, tresna, bitartekoa edo bidea adierazteko.

- MIKEL** Amonarenera noa arratsaldean.
NEREA Bakarrik?
MIKEL Ez, lagun batekin.
NEREA Lagun batekin? Zer dela eta?
MIKEL Bero, bada nire laguna oso da berrietsua eta alaia, eta badakizu...
NEREA Bai, badakit, lagun batez baliatuko zara amonaren baimena lortzeko.
MIKEL Bai, hori pentsatu dut. Gaizki iruditzen zaizue?

Lagun batekin noa.
(Ni eta nire laguna goaz.)

Lagun batez baliatu.
(Laguna nire tresna da amonaren baimena lortzeko.)

Batzuetan, baina, biak erabili ohi dira tresna adierazteko.

Eskuz gidatu du. Eskuekin gidatu du.
Mailuz zulatu du. Mailuarekin zulatu du.

Esan daiteke, hala ere, mugagabea denean, ZEREZ kasua erabiltzen dela eta izena pluralean edo erakusle zein adjektibo batez lagundurik dagoenean, NOREKIN.

Eskuz eginda dago, baina, esku biekin egin du.
Lumaz idatzi du, baina, luma beltzarekin idatzi du.
Sardez jaso dute, baina, sarde horrekin jaso dute.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com